

“Nube de probabilidad”

Jon Otamendi

2019ko azaroak 29 - 2020ko urtarrilak 11

CarrerasMugica

CORRESPONDENCIA PALABRA MUNDO 2019ko azaroaren 29an hasiko da, ostiralez, CarrerasMugican egingo den Nube de probabilidad erakusketaren irekierarekin batera. Nire gorputzaren zutikako 3d eskaneatze batetik abiatuta, animazio bat sortzen da, momentu horretan erortzen hasi eta datozen 39 urteetan zehar eroriko dena. Orduan iritsiko da lurrera gorputz birtuala, mugimendua amaituko da, eta ezabatu egingo da.

Puntu bat 39 urtetan 178 cm mugitzeak, eguneko 0,12 milimetro mugitzen dela esan nahi du. Hain motela da erorketa, non ezin den bista hutsez nabaritu, baina etengabea da, matematikoki gertatzen da. Soilki teknologikoa da haren materialitatea. Balio matematikoen bat-bateko eta etengabea itzulpena irudi naturalista batean. Presentzia klasiko baten simulazioa da, oraindik traketsa.

Haren erorketa hasitakoan hasten da haren denbora propioa ere. Irudia bere jatorritik aldentzen da. Bereizi egiten da. "Existentziara dator denborazkotasun propio korrelazionala, eta utzi egiten du gero" (Brassier).

AGUA FONDO ANIMAL. Potentzia txikiko ponpa elektriko batek urez betetzen du pixkanaka Cupolex baten erdiko konoa, eta gainezka egiten du, gainazalean irristatuz.

Cupolex sistema kofratu galdu bat da, lurretik bereizitako hormigoizko zolatak eraikitzea ahalbidetzen duena. Gainazal-energia txikiko polipropilenoa da, eta beste materialekiko erakarpen gutxi eragiten duela esan nahi du horrek, baita urarekiko ere.

Urak irrist egiten du Cupolexean, ur molekularak hidrogenozko zubi bidez elkartzen direlako, atomoen arteko $9,65 \times 10^{-8}$ milimetroko distantziarekin. Helduok ura gara %50 eta %70 bitartean, umeki bat %97an, eta adineko bat %47an, ura galtzen dugu. Litro erditik gora eguneko, biriketako lurrunketarik.

ANILLO LA 18 kilateko eraztun bat da. Purutasun horretatik gora, urrea ez da erabilera honetarako beharko lukeen bezain egonkorra. Urrearen jatorriaren inguruko teoretiko bat, supernoben nukleoen kolapsoan agertu izana da. Izenak egunsentiko eguzki atera berriari egiten dio erreferentzia. Ezagutzen dugun urre aztarnategirik handiena Psique 16 asteroidea da, eta lurretik eguzkira dagoen distantziaren hiru biderrekoa da eguzkitik duen distantzia. LA Lorea Alfaro artistaren marka barnehutsa da. Logotipoak bere baitan itxi ahal izateko biratu behar duena biratzen du. Logotipoaren garapenaren bi muturren topaketa, iritsiera angelu ezberdineko puntu batean ematen da.

MP4 y MOV, 12 orduetik gorako bideo sorta da. Bideoak ausaz erreproduzitzen dira, galeria irekita egoten den goizeko hiru orduetan (.mov direnak) eta arratsaldeko hiru orduetan (.mp4 direnak). Bere horretan objektu bezala aurre-definituko ez den bideo bat da nire interesa. Ez dadila bere denborazkotasunaren aurreikuspenean agortu, garatu dezala baizik. Lanerako erabiltzen dudana ordenagailuan ditudan bi formatu hauetako fitxategi guztien iraulketa bat da. Bi erreproduzio zerrenda, Mp4 eta Mov, biak ala biak ausaz proiektatuak. Ausazkotasun horrek sortzen dituen segidek zentzu motaren bat iradokitzen dute, urruna. Garrantzitsua da objektua horraino desplazatuta egotea. Ez da dagoeneko gertatu den zerbaiten lekukotza. Lehen gertatutakoagatik, gertatuko da. Hitzordua jartzen dit oraindik kontakizunik ez duen, beharrik ez duelako, erlazio horrekin.

Publikoa den hori halako erlazioak ezartzeko erabiltzeak, etorkizunerako zerbait ematen dit berehala. Bai bideo horiek eta bai bozgorailuan entzungo diren audioak ere urrunetik moldatuko ditut. Internet bidez audio ezberdinak jarriko ditut, eta bideoen ausazko erreproduzioa moldatuko dut, galerian hori ikusiko edo entzungo duen inor badagoen ala ez, nor den eta zertan dabilen jakin gabe.

BRILLO REAL SEXTO TAMAÑO. Bere argitasunean oinarrituta, izar batek duen magnitudeari egiten dio erreferentzia distira erreala. Itxurazko magnitudea eta magnitude absolutua edo distira erreala existitzen dira.

Gauden lekutik jasotzen dugun argi kopurua da itxurazko magnitudea. 150 milioi kilometrora dago eguzkia. Argiak 300 mila kilometro egiten ditu segundoko. Eguzkiaren argiak 8,3 minutu (500 segundo) behar ditu lurrera iristeko. Eguzkiari begiratzen diogunean, duela 8,33 minutu zen bezalakoa ikusten dugu, iraganari begiratzen diogu.

Magnitude absolutua, edo distira erreala, argi-gorputz batekiko 32 argi urteko distantzia jakin batetik jasotzen den argi kopurua da. Izarraren berezko argiaren neurketa da. Bere argitasun propioa.

Opinión Posición Lorea Alfaro artistaren testu-irudi bat da. Antes de la imagen (2019, Caniche Arg.) lanean, berriztatzen ari ziren etxebizitza baten 117m²-ko zorua markatu zen, testu-irudi hori 74 aldiz errepikatuz, erretikula edo patroia modura, eta LA-ren irudiak zituzten publizitate-kartelak jarri ziren barruko tabikeetan. Gero, etxebizitzaren berriztatze lanek aurrera jarraitu zuten. Etxearen irudi habitagarriaren eta eraikinaren egituraren artean jarraitzen du horrek guztiak.

Etxebizitza inauguratutakoan, Brillo real sexto tamaño proiektatu zen zoru gainean, pintadetako bati zegokion lekuan bertan eta haren tamaina berean, behin betiko zorua egiteko bota zen zementu autonibelatzailearen azpian dagoelarik orain pintada hori. Azpian geratu dira testu-irudi horiek guztiak, kolore ezberdinetan egindako (urdina, arrosa, horia, beltza, laranja, berdea, bioleta eta zuria) elementu berberaren erretikula arraro hori.

Objektuaren erabakitasun sotil hori ez da egi ala gezur kontua, ezta on ala txar kontua ere, esperientzia erreal bat ahalbidetzea baizik, bizitza bizitzaren gainean.

Astronomiaren eta fisika nuklearraren mugetan, geure errealitatearen eskalatik kanpo, lengoia hitz poetikoz betetzen da. Esperientziarentzako iluna den eremu horretan, muga batera iristen da denotatiboa dena, eta hortik aurrerakoa ezezaguna da, modu zehatzean adierazia egon arren. Zehaztugabearen poetika objektibo bat agertzen da hor. Ziurgabetasunaren espresio oso sinesgarri bat.

Nire esker ona Tecnia eta Domotec enpresei, euren laguntzagatik, eta baita Jon Cirióni, CarrerasMugica galeriari eta Caniche Argitaletxeari ere, euren inplikazioagatik.


Jon Otamendik (Getxo, 1978) honako proiektuak burutu ditu besteak beste: Antes de la imagen, Asalto#4 Caniche Arg. (Bilbo, 2019), Instalación, EtHall (Bartzelona, 2019), La palabra suceder, Tabakalera (Donostia, 2018; Golem, Az, 2017), La sombra del mundo (Bilbo, 2016), Estasis (Artium, 2014), Atrias (Bilbo, 2014) edo De rebosar o de inundar (Bartzelona, 2013). 2010ean MLDJ egitasmoa jarri zuen martxan. Taldekako erakusketetan ere parte hartu izan du, Bilboko Arte Ederren Museoan (2018), Moisés Pérez de Albéniz (2017), Elba Benítez (2016) eta CarrerasMugica (2015) galerietan, San Telmo Museoan (2014) edota Guggenheim Bilbaon (2013). Informazio gehiagorako: www.jonotamendi.info




Ikuspegi orokorra



AGUA FONDO ANIMAL, 2017. 50 x 222 x 200 cm.






AGUA FONDO ANIMAL, 2017. 50 x 222 x 200 cm. (xehetasuna)



Ikuspegi orokorra



BRILLO REAL SEXTO TAMAÑO, 2017. Gobo, neurri aldakorrak.
Lorea Alfaro-Jon Otamendi elkarlana.






Ikuspegi orokorra



MP4 Y MOV, 2019. Proiektio digitala. (fotograma)



N T O S



MP4 Y MOV, 2019. Proiektzio digitala. (fotogramak)



Ikuspegi orokorra



Anillo LA, 2019. 18 kilateko urrea. Lorea Alfaro-Jon Otamendi elkarlana.




Anillo LA, 2019. 18 kilateko urrea. Lorea Alfaro-Jon Otamendi elkarlana.



CORRESPONDENCIA PALABRA MUNDO, 2019.



CORRESPONDENCIA PALABRA MUNDO, 2019.





Ikuspegi orokorra

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725